

2. eranskina. Irakasleentzat informazio orria.

GALDETEGIA ERANTZUNGO DUTEN IRAKASLEENTZAT INFORMAZIO

ORRIA

Nerea Lago naiz, Euskal Herriko Unibertsitateko Lehen Hezkuntzako Gradu ikaslea eta Gradu Amaierako Lana prestatzen ari naiz *Dislexia* gaiaren inguruan. Horregatik, baliagarria izango litzateke LHko irakasleei galdetegi bat egitea nire lana osatzeko. Galdetegi honen helburua irakasleek dislexia eta hau gelan lantzeko baliabideen inguruan dituzten ezagutzak aztertzea da.

Informazio orri honen bitartez jakinarazten da irakasleek erantzungo duten galdetegia guztiz konfidentziala eta anonimoa dela, eta eman beharreko datu pertsonal bakarrak sexua, adina eta lanean urte kopurua direla.

Beraz, Datu Pertsonalak Babesteari Buruzko 15/1999 Lege Organikoa jarraituz, galdetegien bidez lortuko diren datu eta emaitza guztien trataera egokia bermatzen da.

Besterik gabe, parte hartuko duten irakasle guztien laguntza eskertzen da, nire lana aurrera eramatea ahalbidetzeagatik.

Nerea Lago
(EHUko ikaslea)